

ZELAKOAK GARAN

APOSTU - ZALEAK

Geiegizko apostu-zaleak gara... pelota jokoan, aizkora jokoan, idi demetan, estropadetan... bero-bero jartzen gara, burua galtzen dogu, dirua eta etxe-ko zoriona galtzeraino.

LAGUN ONAK, ABESLARIAK

Euskaldunak berba gitxikoak ei gara, isillegiak; rrengandik geiegi bananduta bizi izan dira, zoritxagure barruko gauzak ez doguz errez kanpora ateratzzen...

Ezegunekin lagun egitea kosta egiten jaku, bai ña bein egin ezkerro, betiko lagun zintzoak ei gara...

Euskalduna ondo jan ondoren abesten asiko da, bestela jaia ez jai...

Euskaldunak abeslari onak garala esaten dabe ezagutzen gaituen guztiak...

Ikastolako BUP maillako ikasleen artean «itaun erantzun» batzuk egin genduzan, jakiteko, euren us-tez, zeintzuk diran euskaldunen «alde onak» eta «alde txarrak».

—Euskaldunen «alde onak». Zeintzuk dira «alderik *onenak*»?

	Autarki
Askatasun-zale	60
Berba-emotea lege	25
Aberria maite	10
Bake-zale	3
Lagun ona	2

—Euskaldunen «alde txarrak». Zeintzuk dira «alderik *txarrenak*»?

	Autarki
Banatuta bizi	52
Buru gogorrak	28
Apostu-zaleak	20

Emen dagoz argi ta garbi jarrita, euskaldunen «alde on» eta «alde txarren» eritxiak.

Onela pentsatzen dabe 14-15 urteko neska-mutillak, euskaldunen izaerari buruz...

IZAEREA

Euskaldunak teoria zale, baiño, praktika-zaleak ei gara...

Filosofia utsez baiño, pratikan lan egiteko ego-kiagoak...

Orre^satik euskalduna, mekanikari, osa^sille, inie-
niero eta esku-langille lenago izango da, pentsalari
baiño.

Ekintzaille (ejecutor) obeak ei gara, asmatzaille
(inventor) baiño...

ASKATASUN-ZALEAK

Euskaldunak, gauza guztien gaiñetik, askatasuna maite dogu...

Askatasuna maite dogu, bai bakarka, baita gure aberria sortzean eta aurrera eroaten be.

Gernika'ko arbola Askatasunaren irudi edo ikas-bide da...

Baiña euskal-lurraldeak, kondairan zear, alka-
rrez!!! eta bakarka lan egin dogulako, arerioak jan
egm gaitue

Euskaldunak bere aberria maite-maite dau, eta
iñok aurka egiten ba'dautso, indar guztiaz bere abe-
rria babestuko (defendituko) dau.

Beste aldetik euskaldunak ez gara gure itxita ba-
uan bizi gure arerioak askotan esaten dabenez...

Ameriketean euskaldun-*seme* geiago bizi da, Euska-
di'n bertan baiño...

Esaera zarra da: «Euskaldunak egoakin jaio di

KASKA-GOGORRAK

Euskaldunak ikaragarritzko kaska-gorrrak eta
buru-gogorrrak ei gara...

Gure eritxiak eta asmoak beti aurrera eroaten ei
doguz, iñoiz be amoreman (ceder) barik.

Indarrez eta txarrez ez gaitu iñok menperatuko...

Onez eta arrazoiz, ostera, ez gara burruka eta
guda-zale Euskaldunak berez bake-zale izan gara,
eta orain be alakoak gara, gure aurkakoak beste gau-
za bat pentsa eta esan arren be.

Euskaldunak ondo ezagutzen zituan batek esaten
ei eban: «euskaldunak onez bildotsak dira, baina eu-
rekaz txarrez asi ezkerro... leoien artean gurago neun-
ke bizi»...

EUSKAL ABESLARIAK

—Zein kantari edo kantari-talde da zuretzat go-
gokoena?

Itoiz	21
Benito Lertxundi	20
Gorka Knorr	16
Errobi	8
Xabier Lete	8
Urko	7
Mikel Laboa	3
Laja eta Iturbide	1

Euskal kantari eta kantari-taldei buruz onela
pentsatzen dabe Loiola ikastolako lenengo eta biga-

GOIKOETXEA'tar Iñaki